



II. ATALA BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA

Basauriko Udala

2024ko ekitaldiari dagokion Trakzio Mekanikoko Zergaren Errolda onespeneren iragarkia.

2024ko urtarrilaren 12an Alkatetzak emandako Dekretu bidez, 2024ko ekitaldiari dagokion Trakzio Mekanikoko Zergaren Errolda onetsi da.

Jendeaurreko egiten da hori, Tributazioko Foru-Arau Orokorren 100.3 artikuluan aurreikusitakoaren arabera, eta hamabost egunetako epea irekitzen da, iragarki hau Bizkaiko Egunkari Ofizialean argitaratzen den eguneko biharamunetik aurrera, interesatuek espedientea aztertu ahal izan dezaten, zeina Udaletxe honetako Zergen Kudeaketa eta Ikuskaritzako Atalean dagoen jarrita, eta haren aurka egoki lerizkien murtziloak jartzeko aukera izan dezaten.

Halaber, Zerga bilketarako Foru erregelamenduaren 15.3 artikulua arabera jakin jartzen ditugu, Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen Udal Zerga ordaintzera beharturik dauden zergadunak, 2024ko ekitaldiko Erroldari dagokion kobrantza, Borondatezko Epean, hurrengo era horretan egingo dela:

Ordaintzeko Epea: 2024ko otsailaren 1etik apirilaren 2ra arte, biak barne. Helbideratutako ordainagiriak kontuan kargatzea: 2024ko apirilaren 2an.

Ordainketa egiteko Finantza-erakundeak	Abanca Caja Rural de Navarra Kutxabank	Eskudirutan, Bezeroaren Kontuan Zordunduta edo Kutxazain automatikoetan
	Banco Sabadell	Bezeroaren Kontuan Zordunduta edo Kutxazain automatikoetan
	Laboral Kutxa	Bezeroaren Kontuan Zordunduta
	Caixabank	Kutxazain automatikoetan
Ordainketa Helbideraketaren bidez egiteko agindua	Bilketa Atalean telefono, edo e-mail bidez, edo Herritarren Informazio eta Arretarako Bulegora etorruta	
	Fidantza Erakunde Laguntzailean, aldizkako zerga bat ordaintzean	
Internet bidezko ordainketa	http://www.basauri.eus	— Basauriko Udaleko web orrian sartuta, jasotako ordainketa-gutunarekin, eta «Egoitza Elektronika – Nire Ordainketa» aukera erabilita — Ordainketa Erakunde Laguntzaileen on-line bankuaren erabiltzailearekin edo ordainketa txartelarekin. Edo beste edozein Finantza Erakunderen ordainketa txartelarekin, Erakunde Laguntzaile ez izan arren.

Zerga-Bilketa Atala / Sección Recaudación

Tfno: 944666304 e-mail: recaudacion@basauri.eus

— Salbuetsita daude ezindu baten izenean matrikulatutako 14 zerga zalditik behar-rako ibilgailuak, ezinduak berak erabiltzeko direnak. Salbuespena edo hobaria emana izan denean, horren ondorioak, eskaria egin ondorengo hurrengo ekitalditik aurrera, hasten dira. %95eko hobaria ibilgailu elektrikoentzat, %50ekoa propulsiio hibridoa dutenentzat, %50ekoa familia ugariarentzat eta %50 ibilgailu historikoa edo 25 urtetik gorakoa.

— Epe horretan ordainketarik egin ez duten zergadunei premiamendu bidez ordainaraziko zaie, dagozkion errekaruak aplikatuta.

Jendaurreko egiten da denek ezagun dezaten eta betea izan dadin.

Basaurin, 2024ko urtarrilaren 12an. — Ogasun, Ondare, Ekonomia Sustapen eta Merkataritzako Ordezkaría, Berta Montes Beltrán